

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Ireki da 2018ko lehen hiruhilekoan Nafar Lansareko 110 trebakuntza-ekintzatan izena emateko epea, eta 1.700 plaza inguru eskainiko dira

*Eskaintza [www.empleo.navarra.es](http://www.empleo.navarra.es) webgunean kontsultatu daiteke, eta zabaldu egingo da datozen asteetan*

Astelehena, 2017.eko abenduak 11

Nafar Lansareak 2018ko lehen hiruhileko 110 trebakuntza-ekintzatan izena emateko epea ireki du, eta 1.700 plaza inguru eskainiko ditu.

Hauexek dira ekintzak: lan-esparruetako 69 trebakuntza-ikastaro, lehentasunez langabeei zuzenduak; langabeentzako 22 Trebakuntza eta Enplegu Programa Misto; eta gaztelaniako eta matematikako oinarrizko gaitasunen 19 ikastaro.

Datozen asteetan, zabaldu egingo da eskaintza hori, beste trebakuntza-ekintza batzuk antolatuko baitira NLren "CENIFER" eta "Iturro" zentroetan, eta lanean dabilzanek izango dute lehentasuna.

Aldian-aldean eguneratzen da [www.empleo.navarra.es](http://www.empleo.navarra.es) webgunean, Trebakuntza atalean, edo birmoldatu berri den [www.formaccion.info](http://www.formaccion.info) webgunean.

Zehazki, lehentasunez langabezia daudenentzat (plazen % 60ra arte, eta, gainerakoak, lanean dabilzanentzat), NLk 69 ikastaro eskaintzen ditu, eta, guztira, 1.035 plaza.

Haietatik 54 Iruñerrian egingo dira.

Ia ikastaro guztiek dute Profesionaltasun Ziurtagiriaren moduluko titulazioa edo egiaztagiria, edo titulazio ofiziala, Microsoften ikastaroen kasuan.

Esparruak askotarikoak dira:

igeriketa, sorospena, mikroenpresen kudeaketa, kontabilitatea, lorezaintza, multimedia-editorialak, horniduren kontrola, logistikarako ingelesa, biltegien kudeaketa, igeltserotza, sukaldaritza, ile-apainketa, kontserbak, iturgintza, ekipamendu industrialaren mantentze-lanak, arreta soziosanitarioa, ingurumen-kudeaketa, desgaitasuna dutenen laneratzea eta eraikinen garbiketa, besteak beste.

Lizarran, Lodosan, Tafallan eta Tuteran 15 ikastaro egingo dira: Lizarran, lorezaintzari, turismorako ingelesari, arreta soziosanitarioari eta karrozeriari buruzkoak; Lodosan, elikadura-biltegi-tako mantentze-

lanetarako eta garraiorako laguntzaile izatekoa; eta, Tuteran, kontabilitateari, lorezaintzari, salmenta-eragiketei, sukaldaritzari, makineria industrialaren mantentze-lanei, bitartekaritza komunitarioari eta arreta soziosanitarioari buruzkoak.

## **22 Programa Integral, 260 plazarekin**

Bestalde, NLk 260 plaza inguru eskaintzen ditu 22 Trebakuntza eta Enplegu Programa Integraletan (TEPI), eta programok trebakuntza, orientazioa eta lana bilatzeko lehenengo fasean laguntzea uztartzen dituzte.

Ikastaro gehienak urtarrilean hasiko dira, eta langabeei zuzenduta daude.

Iruñerrian, lan-esparru hauetakoak dira ikastaroak:

"Logistika eta biltegia", "Garbiketa", "Mendekoei arreta soziosanitarioa ematea erakunde sozialetan", "Teleoperadorea", "Saltzailea", "Telaguntza", "Fabrikazio mekanikoa eta soldadura", "Igeltzu ijeltzuzko xaflarekin aurrefabrikatutako produktuak muntatzea", "Administrazioa", "Osasuna", "Harreragilea", "Orga jasotzaileak" eta "Merkataritza-jarduera osagarriak".

Lizarrako enplegu-agentzian, "Bezeroenganako orientazioa eta kuxaren kudeaketa" eta "Mendekoei arreta soziosanitarioa ematea erakunde sozialetan".

Tafallan, Gaztelanek lorezaintzari buruzko TEPI bat emango du, luzaroko langabeei zuzendua.

Tuteran, "Ostalaritza" emango du Ilundáin Haritz Berri Fundazioak.

Arguedaseko Udalak "Lorezaintza" eskainiko du, eta, Faltzesekoak, "Soldadura".

Hauetako ikastaroak emango dituzten gainerako erakundeak: Acción Laboral, Nueva Gestión fundazioa, Posthac elkarteak, Acción contra el Hambre fundazioa, Secretariado Gitano fundazioa, Asociación Navarra de Empresas de Transporte y Logística, Gaztelan fundazioa eta Iruñeko Udala.

Izena emateko, enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egon behar da NLren Enplegu Agentzietan, eta TEPI bakoitzean izena emateko baldintzak bete behar dira.

Enplegu-agentziak arduratzen dira hautagaiak aurrez hautatzeaz.

## **Oinarrizko gaitasunen ikastaroak eta frogak**

En total 19 cursos, 9 de ellos en Pamplona y 10 en Alsasua, Estella, Tafalla y Tudela. En cada curso se ofertan 25 plazas, haciendo un total de 475.

En concreto, se ofrecen los cursos de competencias clave en Lengua Castellana N2 y en Matemática N2 en Pamplona, Alsasua, Estella, Tafalla y Tudela. Y otro curso en Pamplona de Competencias Digitales.

Oinarrizko gaitasunen ikastaroei esker, titulazio jakin batzuk ez dituztenek izena eman dezakete Profesionaltasun Ziurtagiriak igortzen diren trebakuntza-ikastaroetan; dokumentu ofizial horiek Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko lanbide-kualifikazio bat egiaztatzen dute, eta estatu osoan balio dute.

Oinarrizko gaitasunak egiaztatzeko, matematikako eta gaztelaniako ebaluazio-froga bat gainditu behar da "ohiko deialdian".

Abenduaren 26tik urtarrilaren 24ra arte egongo da irekita, NLren enplegu-agentzietan, 2018ko lehen hiruhileko frogetan izena emateko epea.

Froga horiek urtarrilaren 30a eta otsailaren 1a bitartean egingo dira, zenbait udalerritan. [www.empleo.navarra.es](http://www.empleo.navarra.es) webguneko "Profesionaltasun Ziurtagiriak" atalean